

# puntuua

Nawata

Mexikoko hizkuntza txikia, bere espazioaren bila



## PUNTUA 218

2019-12-13 EGUBAKOITZA

### Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Asel Luzarraga
- 6 **Irudiz** Gozoki zaparrada
- 8 **Mundutik** Belgika: Leopoldo II.aren holokaustoa
- 10 **Erreportajea** Hizkuntza gutxiuak biziberritzen
- 20 **Elkarrizketa** Xabier Amuriza, bertsolaria eta idazlea
- 24 **Osasuna** Tabakoa eta minbizia
- 26 **Kirola** Itoitz Armendariz *musher-a*
- 28 **Adituen esanetan** *Baratzing-a*
- 30 **Otorduan** Dukiena jatetxea: eskaintza zabala
- 32 **Moda** Baserritar jantziak
- 34 **Motorra** Ibilgailu kutsakorrek
- 36 **Gure artistak** Aimar Elortza arrasatearra
- 38 **Kultura**  
*Dzirt-dzart* marrazketa saioa
- 42 **Gure altxorak**  
Arrasate: Anporretako bira
- 44 **Gadgetmania**
- 46 **Handitzen, handitzen** Eskulana:  
*Kakahueteak irudimena lantzeko*
- 47 **Jaioberriak**

#### IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Jon Sagarzazu  
*'Apocalypse now'*
- 16 **Hainbat aburu** Iban Perez Hernandez *Datorren urtean...*
- 16 **Eztabaida**  
Obesitatearen gaitza, jomugan...
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea**  
Maider Azkarraga-Urizar *Zubiak*
- 18 **Talaitatik** Urko Lopez *Zenbat erronka, ze handia den mundua eta... ze urriak gure erantzunak*
- 40 **Komunikazioa** Irati Barrena  
*Komunikatu beharra*

## puntua

goiena<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

#### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

#### Lehendakaria

Aitor Izagirre

#### Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal

#### Zuzendaria

Eneko Azkarate

#### Erredaktore burua

Monika Belastegi

#### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe

#### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate

#### Publizitate arduraduna

Mireia Larrañaga

#### Kluba eta banaketa

Igone Osinaga

#### Maketazioa

Imanol Soriano,

Aitor Lagoma

Amaia Martinez de Arenaza

#### Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza

Martin, Amaia Mundiñano

#### Administrazioa

Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

#### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kubxa

Tel.: 943 25 05 05

berriak@goiena.eus

#### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

publi@goiena.eus

#### HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

#### Lege Gordailua:

SS-1509-2014

ISSN: 2443-9738

Tirada: 4.100 ale

#### Inprimategia:

Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

# 'Apocalypse now'



JON SAGARAZU

**2**019ko abenduan gaude, hamarkada honen azkenengo asteak xahutzen. Ziztu bizian, oharkabeen egin digute ihes eskuen artetik hilabeteek eta urteek, eta konturatu orduko gure *mende berriaren* lehen hogeitau urteak joan zaizkigu jada. Oroimenean urrun da XXI. mendea hasi genueneko eguna, kosta sinestea bi hamarkada oso igaro direla ditzosozko 2000ko urte hartatik. Oso urrun zegoen orduan etorkizuna, baina konturatzera harrapatu gaitu! 2020. urtean sartzera goaz, eta gure gizaldiko askok oraindik ez dakigu nola iritsi garen *etorkizun urrunari* ipintzen genizkion data hauetara. Etorkizuna orain inoiz baino hurbilago dugu, ate-joka!

Aldaketa historiko honen kontzientzia falta zaigu, agian, honelako data borobiletan munduaren amaiera iragarri nahi izaten duten agoreroak falta zaizkigulako. 2020. urtea Historia unibertsalari azkena emateko elegantea ez omen! Milurtekoaren amaieran milenaristak izan ziren, eta 2012an ere bai, gauza ziurtzat zutenak gizateriaren azken desastrea urtean gertatuko zela. 2020. urtea hastera goaz eta hauek ez dira inon ageri, ordea! Faltan igartzen ditugu, isilik daude oraingoan gure igarle apokaliptikoak! Inork ez du 2020an Historiaren azken etena aurreikusten, arrazoirik falta ez zaigun arren!

Baditugu eduki, gure artean, Itun Zaharreko profeten gisara, Zeruaren izenean desastrea eta kalamidadeak agintzen dizkiguten predikariak: izurria eta lehortea, uholdea eta erauntsiak, itsasoaren gorakada geldiezinak, gure ohiturak aldatu eta paradigma ekologiko berrira konbertitu ezean. Askok sinesten dute azken urteotako erreazio politiko berriek desegino dituztela aurreko mendean lorturiko adostasun nagusiak, Europaren batasuna eta merkatu librearen barne. Krisi ekonomikoaren mamua ez dugu guztiz exorzizatu, hor dabil aurreikuspen ekonomikoak mehatxatzen, han-hemenka. 2020ko hamarkadan mundua serio izorratzeko aukerak oso anitzak dira.

Desastre guztiok errealitate bihur litezkeen arren, XXI. mendeko gizakiok lanpetuegi gabilta esku artean ditugun arazo konkretuak konpontzen munduaren amaiera orain antolatzeko. Edo, agian, gure egia sakonena da, mehatxuek eta izu-beldurrek baino gehiago, itxaropenak garamatzala benetan aurrera. Kikildu eta paralizatzen gaituen *zori-txarrak* baino, *zori-onak* mobilizatzen gaituela gizakiok. Zorionaren itxaropenari eutsiz goaz aurrera, XXI. mendearen barna. Denoi opa dizuet 2020. urte *zori-ontsua!* ■■■

**FALTAN IGARTZEN  
DITUGU, ISILIK DAUDE  
ORAINGOAN GURE  
IGARLE  
APOKALIPTIKOAK**

# Asel Luzarraga

---

## TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: T.M.

---

Idazle bizkaitarrak *Inoren munduan* argitaratu berri du; orain arte kaleratu dituen lanen artean, benetako bitxikeria.

**Generoz ere aldatu duzu oraingo honetan, eta fantasian murgildu zara.** Nerabe nintzenean, genero hori lantzen nuen, erdaraz. Unibertsitate garaian asko irakurtzen nituen Tolkien eta horrelakoak, eta, zorionez, orduan idatzitako apunteak ere gordeta neuzkan. Duela urte bi, horiek gazteentzat egokitzen hastea erabaki nuen. Mundu fantastiko horiek euskaraz landu gabe neuzkan, eta liburua nire ohiko ibilbidean parentesi bat dela esan genezake.

**Nolako izan da mundu berri bat hutsetik sortzea?** Umetatik izan ditut gustuko mapak-eta erakusten zituzten liburuak, eta neu ere ibiltzen nintzen animaliak, mapak eta horrelakoak asmatzen; ondorioz, oso naturala zen niretzat. Eta berriz ere lan horietara itzultzean oso eroso sentitu naiz, nire haurtzarora eta gaztarora bueltatzea bezala izan da.

**Ukitu feminista nabarmena du liburuak.** Lehen zirriborroa 24 urterekin egin nuen, eta orduan irakurtzen nituen liburu guztietan, protagonista gehienak, batez ere aktiboenak, gizonezkoak ziren. Baneukan sentsibiltate hori. Gainera, konturatu nintzen kontua ez dela emakumeak gizonezkoen gizarte egituretara moldatzea; egitura horiek errotik aldatu eta beste mundu berri bat eraikitzea baizik, zeinetan emakumeen ahotsak hasieratik duen garrantzia. Azken finean, gure gizarteaz hitz egiten da, baina fantasiazko mundu batez baliatuta.

**Hainbat egunez egon zara Durangoko Azokan zure liburuarekin. Gustura harrerarekin?** Oso gustura. Gainera, niretzat berria zen gazte literaturako zerbait argitaratzea, eta jakina da hedabideetan-eta helduenak baino oihartzun txikiagoa izaten duela. Harrituta nago, asko saldu delako eta liburu asko sinatu nituelako. Hartu-eman polita izan dut gazteekin eta gurasoekin.

**Idazlea bai, baina musikaria ere bai.** Nire buruari *musikari* deitzeak lotsa ematen dit; musikaria baino gehiago, lotsagabekoa naiz ni. Musika gozaten dut, baina ez dut ikasketarik, eta GorriBaltz izeneko oraingo proiektuan dudan erraztasuna da ordenagailuekin egiten dudala dena. Lehen, ibili nintzen punka jorratzen zuten beste talde batzuetan: nik abestu egiten nuen, eta musika zekitenek egiten zuten. Gero, oinarrizkoena ikasita, baxua jotzen nuen talde argentinaren batean; eta egiten nituen kantuak haientzat. Baina musikari naizela esatea asko da.

**Zergatik anarkista?** Nire galdera kontrakoa da: zergatik ez anarkista? Mundua dagoen moduan egonda, gobernuek, hierarkiek, alderdiek, mugek... horiek guztiek nora eraman gaituzten ikusita, nola ez izan anarkista? Oso gaizki gaude, eta okerrera goaz; irakatsi diguten guztiak ez du ezertarako balio mundua norabide onean jartzeko. Ni, nerabezaroan, punkari lotuta, konturatu nintzen anarkista nintzela. Ez nuen hierarkietan, gobernuetan, alderdietan sinesten, eta anarkismoan aurkitu nuen lekua.

**Oraintxe beteko dira hamar urte atentatu batzuekin zerikusia zenuelakoan Txilen atxilotu zintuztenetik. Nola gogoratzen dituzu hilabete haiek?** Ez dut ahaleginik egiten gogoratzeko, nahiz eta beti ezagutzen duzun gertatutakoa ez dakien norbait, eta kontatu beharra izaten diodan. Oso urrun gogoratzen dut, eta ez dut inoiz ere sentitu nire bizitzan zerbait oso larria izan zenik. Eta hori, batez ere, jendeari esker da. Hori bai gorde dut, jendearen partetik jasotako elkartasuna eta maitasuna. Baikortasun horrek beste bizipenak tindatu ditu, eta, ondorioz, ez dira oroitzapen txarrak.

**50 urteak ate joka dituzu. Zer eragiten dizu horretan pentsatzeak?** Ahalegintzen naiz ahalik eta gutxien pentsatzen! Esango nuke denok uste dugula adinak dioena baino gazteagoak garela: "50 urte nik?". Betiko bizimodua egiten dut: idatzi, parranda eta gaupasak egin, kontzertuetara joan... Eta espero dut luzaroan jarraitzea horretan. ■■■



# Gozoki zaparrada

**ARGAZKIA:** XABI URZELAI

**TESTUA:** JOKIN BEREZIARTUA

Ume arrasatearra izanez gero egutegian gorritz markatutako eguna da abenduaren 6a. San Nikolas ospatzen da Arrasaten, abesti bat kantatzearen truke gozoki zaparrada eragiten duen ospakizuna. Urteekin egokitzen joan den ohitura zaharra da; hori bai, oraindik ere abestia kantatu barik *huri gozorik* ez dago. Urtean behin baina makina bat bider abesten den kantua da, ahalik eta gozoki gehien poltsikoratzeko abesten dena; lehia horren lekuko da ondoko argazkia, Herriko Plazako boloarena. Hala ere, jatorri erlijioso nabarmena duen abestiaren esanahia bigarren plano baten geratzen delako goizaren amaieran, poltsa gozokiz bete duenaren irribarreak eta nahikoa gozoki lortu ez duenaren negarrak islatzen duelako arrakasta edo porrota: *San Nikolas, coronado, arzobispo de Bari es...* ■■■





# Leopoldo II.aren holokaustoa

BELGIKA



**TXEMI ETXEBARRIA** BELGIKAN BIZI

DEN BERGARARRA

ARGAZKIAK: T.E.

Nire aita arduratzen da nik euskara eta euskal kultura dosia noizean behin jasotzeaz. Oraingo honetan, Argia hedabideak Interneten duen sarrera pasatu zidan. Bertan ikusitako hitzaldi baten bidez jakin izan dut orain dela gutxi Juan Sebastian Elkano itsasgizon eta esploratzailearen inguruan sortutako eztabaidari buruz. Badirudi pertsonaia honen inguruan egin berri den euskal filmak kritika gogorak jaso dituela Filipinetan konkistatzaileak zuritzeagatik. Hitzaldi horretan, besteak beste, azaltzen dira Elkanoren alde ilunaren inguruko hainbat datu; bere esploratzaile lanetan burututako krimenak, adibide baterako. Hau entzun eta gero bururatu zitzaidan orain irakurtzen zauden artikulua idaztea. Zergatik? Ba, hemen, Belgikan, bizi naizen herriak baduelako antzerako kasu batean parte hartzen duen pertsonaia bat: Leopoldo II.a Belgikakoa.

Nire emaztea eta ni Leopoldo I.ak sortutako herrian bizi gara, Leopoldsburgen. Leopoldo honen semeak ere Leopoldo izena zuen, Leopoldo II.a,



Leopoldo II.a.

beraz, eta artikulua honetako protagonista.

Leopoldsburgen bere omenez egindako etorbide bat badago, baina Belgika osoan asko eta asko dira bere aginduz altxatutako eraikinak. Izan ere, bere ezizena Koning Bouwheer zen; hau da: Errege Eraikitzailea. Nondik atera zuen eraikin horiek guztiak gauzatzeko dirua? Hori beste kontu bat da. Nik, izan ere, beste ezizena bat ipiniko nioke: Errege Diruzalea, hain

**'ERREGE ERAIKITZAILEA'  
EZIZENEZ EZAGUNA DA  
LEOPOLDO II.A, BAINA  
'ERREGE DIRUZALEA'  
ZELA ESANGO NUKE NIK**

zuzen. Bere diru-gose hori 1866 inguruan hasi zen handitzen. Orduan, Madrilgo Belgikako enbaxadoreari agindu zion Isabel Erreginarekin hitz egiteko Filipinetako irlen agindua eskuratzeko –berriz Filipinak!-. Enbaxadoreak, aldiz, ezer gutxi egin ahal izan zuen eta Leopoldo II.ak kargutik kendu zuen, bere orde z bere konfiantzazko beste norbait izendatuz. Hala ere, ezin izan zuen bere helburua lortu eta beste herrialde bat aukeratu zuen bere ekintzak burutzeko; oraingo honetan, Afrikan.

Garai hartan Ingalaterran eta Frantzia sortutako korrante batek Afrikako esklabotza arabiarra defendatzen zuen. Korrante horretan ikusi zuen Leopoldok aukera berri bat eta 1876an erabaki zuen erakunde humanitario bat sortzea esklabotza horri amaiera emateko. Europako herrialde boteretsuenek antolatutako batzar baten erabaki zuten zer egin herrialde afrikar horiek. Jakina, herrialde afrikarrak ez zeuden gonbidatuta eta, besteak beste, Kongo herrialdea Leopoldo II.ak kudeatzea adostu zuten. Horrela sortu zuen gure Leopoldok Belgika baino 76 aldiz handiagoa den Kongoko Estatu Askea. Baina askatasuna eta onura ez ziren inoiz bere helburuak izan.





Leopoldo II.aren garaian tortura jasan zuen Kongoko haur bat, eskua moztuta, misiolari batekin.

### Armada pribatua Kongon

Hasteko, ondo armatutako armada pribatua sortu zuen, Force Publique delakoa, ofizial zuri eta soldadu beltzez osatua. Armada honen laguntzarekin bertako biztanleria natiboa behartu zuen marfil kantitate izugarriak biltzera. Baina ondoren, kautxuaren balioaren igoerarekin erabaki zuen bere boterea beste gai hau lortzera bideratzea. Gomazko garraioaren industriak sekulako eskaria zeukan –autoak, ziklomotorrak, bizikletak, isolamendu materialak, telegrafia, telefonía eta elektronikak–, eta Kongo erdia gomazko zuhaitzek osatuta zegoen. 1892an, Louis Chaltin ofizialak hauxe utzi zuen idatzita: "Bertako natiboei ez zaie kautxua ekoiztea gustatzen. Beraz, behartu egin behar dira".

Leopoldoren Kongoko administrazioa erailketan, torturan eta ankerkerian oinarritu zen, basakeria sistematiko ezagunaren ondorioz. Gizonen, emakumezkoen eta haurren eskuak anputatzen zituen kautxuzko kuota betetzen ez zenean. Gertakari horien eta beste batzuen lekuko testigantzen eta ikuskapenen arabera, Kongon 10 milioi pertsona inguru hil zituzten (Kontsulta Batzordeak, 1904).

## KONGON 10 MILIOI PERTSONA INGURU HIL ZITUZTEN LEOPOLDO II.A ERREGE IZAN ZEN GARAIAN

### 'Ahanzte handia'

Leopoldo II.aren heriotzaren eta kolonia pribatuko ondasun guztiak Belgikara ekarri ostean, Ahanzte handia deritzona etorri zen. Belgikar askok oraindik eraikinen errege bezala oroitzen dute hura. Ostenden, adibidez, hondartzako pasealekuak Leopoldo II.aren 1931ko eskultura monumentua dauka, Kongok Leopoldo eta Ostendeko arrantzaleei esker ona erakutsiz haiek arabiarren menpeko esklabotzatik askatu izanagatik.

2004an, talde aktibista batek kongoarraren irudiaren ezkerreko eskua moztu zuen, Kongon burututako ankerkerien aurka protesta egiteko. Udalak erabaki zuen estatua bere forma berrian gordetzea, eskurik gabe. ■



# Hizkuntza gutxituak biziberritzen

Mexikoko Tosepan kooperatibako nawat komunitatearekin hizkuntza lankidetzan ari dira Garabide eta Emun. Tosepan kooperatibaren barruan hizkuntza plana ezartzea da helburua, nawat hizkuntza biziberritzeko; eta, horretarako, Euskal Herriko euskara planak hartu dituzte oinarri.

Testua: **Arantzasu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **Juan Luis Arexolaleiba eta Txerra Rodriguez**.



Arexolaleiba eta Rodriguez, Tosepan kooperatibako kideekin.

**G**arabide Elkarteko eta Emun Kooperatibako ordezkariak Mexikon izan dira azaroan, hamabost egunez. Mexikoko Puebla estatuan izan dira, zehazki, Quetzalan, Tosepan kooperatibako nawat komunitatean hizkuntza plana garatzen.

Garabide Elkartea kooperazio era berria egiten duen gobernuz kanpoko erakundea da. Zehazki, lankidetzaren alorrean munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzen ditu euskararen esperientziatik abiatuta. Egiteko ezagunena munduko hizkuntza gutxituenetako ordezkariak Euskal Herrian eskaintzen diren formakuntzak ematea den arren, munduan barrena hizkuntzaren biziberritzerako aholkularitza lana ere egiten du. "Garabide munduko hizkuntza gutxituei erakusteko daukana da euskararen bilakaera, bere indarguneekin eta ahulguneekin. Hortaz, garrantzitsua da hemen egin dena jaso, aztertu eta horren berri ematea", azaldu du Garabideko Juan Luis Arexolaleiba *Gatxi*-k. Hori horrela, eta Nazio Batuen erakundeak 2019 hizkuntza indigenen nazioarteko urtea izendatu duela kontuan hartuta, Garabide elkarteak bere ekimenak ugaritu ditu; besteak beste, Emun kooperatibarekin Tosepan kooperatiba taldean nawat hizkuntza plana garatzeko lanean dihardute.

#### **Talde kooperatiboa: Tosepan**

Tosepan aspalditxotik dabil Garabiderekin elkarlanean; 2006a ezkerro, hain zuzen. Bertako hainbat kide Euskal Herrian izan dira

## LORTU DUTE TOSEPANEKO ZUZENDARITZA ETA KONTSEILUA LERROKATUTA EGOTEA

hemengo esperientzia ezagutzen, eta, Garabideren laguntzarekin, hizkuntza biziberritzeko hainbat proiektu jarri dituzte martxan – guztira, Tosepaneko zortzi pertsona izan dira Garabideren bitartez Euskal Herrian–: murgiltze eredu eskola, irratia, corpora batzeko lana eta, orain, kooperatibetan hizkuntza sustatzeko lana. "Talde kooperatibo berezia da: irradi bat dute nawat hizkuntzan, eskola bat ere badute asko lantzen dutena hizkuntza... ikusten genuen horri guztiari txapela jarri behar zitzaioela eta modu planifikatu batean egonkortu behar zela", azaldu du Arexolaleibak. Horretarako aukera iaz sortu zitzaien: garabidek hitzarmena sinatu zuen Emunekin, Emun arduratu zedin gai teknikoek, aholkularitza hori ematen. "Iaz hasi ginen programarekin: formakuntzatik askoz ere aurrerago doan ekimena da. Euskal herrian dauden 200dik gorako euskara planen oinarriak hartu eta han aplikatu ditugu", dio.

Lan hori egiten dabil Emuneko Txerra Rodriguez: "Eskatzen zuten euren kooperatibetan nawata biziberritzeko planak martxan jartzea. Hortaz, hartu genituen hemengo euskara planak oinarri moduan, baina hango egoeretara moldatu ditugu. Esan nahi dut: hango egoera eta hemengo ezberdinak dira. Hemen alfabetatze maila baxua da, baina hango oso txikia da; ezagutza, aldiz, handia da. Ziurrenez, hemengo enpresa eta entitate batzuetan baino handiagoa, baina ahozkoa nahiko mugatuta geratu dira planak tarte honetan. Guk nahi genuen lau espazioetan proba pilotu batzuk egin eta esperimintatzea, eta modu horretan bilatzea kooperatiba osorako plan bat". Rodriguezek dio horrelako esperientzietatik beti ikasten dela: "Ziurrenik, irakatsi baino gehiago". Orain dela urte eta erdi egin zuten ariketa zera izan zen: "Zer da euskara plan batetik euskarari bereziki eragiten diona eta zer da erabileran plan batek ezinbestean eduki behar duen atala? Hau da, zer da euskararen partikularitasuna eta zer da hizkuntza gutxitu guztiei aplikatu dakiokena?".

### Indarguneak eta ahulguneak

2018ko apirilean izan ziren lehenengoz Mexikon; eta aurretik, azaroan izan dira bigarrenez: "Lehenengoan ere formakuntza apur bat eman

genuen, baina uste dut bigarren honetan askoz gehiago asmatu dugula formakuntzan. Egia da gehiago ezagutzen dugula errealitatea. Ikusi dugu bai zuzendaritzakoekin eta baita sustatzaileekin –kooperatibaren izenean komunitateetan ibiltzen direnak dira– egindako batzarrak oso emankorrak izan direla. Beste jarrera bat sumatu dut aurreko urtearekin alderatuta".

Rodriguezek esanetan, hizkuntza planak ezartzeko orduan izan dituzten ahulguneak eta indarguneak ondokoak izan dira: "Lortu dugu Tosepaneko kontseilua eta

### Indartsuago izateko elkartu dira

Nawat komunitatea Mexikoko Puebla estatuan dago, eta milioi bat eta erdi hiztun ditu. Komunitate horretan garrantzi handia du Tosepan Titataniske kooperatiba elkarteak, orain dela 42 urte sortua –nekazariak sortu zuten: elkartu ziren merkeago erosi eta saldu ahal izateko, hain zuzen–. 200 bat komunitatetan dituzte kooperatiba lokalak eta, denera, 40.000 familia inguruk parte hartzen dute. 600 bat langile dituen kooperatiba da. Funtzio sozial eta ekonomiko ikaragarria betetzen du Tosepanek bere eragin eremuan: "Elkartea sortu zen beste batzuk gure lanaren produktuarekin geratzeaz nekatu egin ginelako". Izaera sozial batekin sortutako kooperatiba da eta izaera sozial horrekin jarraitzen dute: jende txiro eta langilea batzen dute.

zuzendaritza planarekin lerrokatuta egotea, ikusi dute plana beharrezkoa eta ezinbestekoa dela. Bigarren indargunea da Tosepanekoak oso ohituta daudela tankera honetako planak eta aldaketak egitera, eta hori abantaila bat da beti; eta hirugarrena da ezagutza maila eta erabilera handia dela. Ahulguneen artean, aldiz, alfabetatze maila txikia dago, horrek dakarren guztiarekin. Beste ahulgune bat da falta dela Tosepaneko kooperatiba guztiak plana barneratzea. Prozesu bat da eta etorriko da hori ere, baina badago zer hobetua".



Tosepaneko kideak formakuntza jasotzen; talde-lanean.

### Hizkuntzak mundua ikusteko moduarekin duen garrantzia

Nawat komunitatea eta nawat hizkuntza ezagutzea garrantzitsua dela dio Arexolaleibak; izan ere, hizkuntzak euren nortasunarekin zerikusia du: "Alde batetik, eurek ez dute hizkuntza elementu isolatuta moduan ikusten; hizkuntzak badu bere izaera, bere osotasuna... oso lotuta ikusten dute euren izaerarekin. Horregatik, planaren izena da Hizkuntza eta Identitate Plana. Borroka handia dute petrolio-industriarekin; hortaz, egiten dute euren lurraren babesa, proiektu handi horien aurka egiten. Ikusten dute euren lurraren eta kulturaren lana gauza integratu moduan, ez dute hizkuntza gauza soil moduan ikusten. Eta, gainera, mundu-ikuskerak dute. Hizkuntza lotzen dute eurek mundua ulertzeko duten izaeraz". Arexolaleibaren esanetan, nawat komunitatean transmisioarekin dute "arazo handia. Esan diegu transmisio galtzen denean, familiako transmisioa, hizkuntza bat hil egiten dela", dio.

### Epe motzerako erronkak

Rodriguezek dio aurrera begirako erronken artean dagoela orain arteko prozesua itxiztat ematea, aurrera egin ahal izateko: "Orain, Tosepan ari da lantzen bost urterako plan estrategiko bat, hizkuntza eta identitatea indartzeko. Ez hori bakarrik; orain arte nawatarekin bakarrik dabilta lanean, baina aurrerantzean asmoa da totonakarekin ere hastea lanean. Beste hizkuntza gutxitu bat da, Tosepaneko kooperatiben eremuan berba egiten dena. Kontua da plan hori diseinatzeko ari direla orain, eta urtarril amaierarako plana eginda izan gura dute. Ez da erronka makala".

Euskararen egoera eta nawataren egoera ezberdinak diren arren, antzekotasunak ere badituztela dio Rodriguezek, eta "horren berezia ez zarela" erakusten du, hein batean, horrek. "Guk bizi dugun hau ez dela horren berezia, nahiko arrunta dela munduan", gehitu du.

Etorkizunera begira ideia, asmo eta ametsik ez dira falta nawat komunitatean: "Euskal Herrian iluntzen duen hurrengoan gogoan hartu itsasoz bestalde kimatzen ari den hizkuntza lankidetzak".

**HIZKUNTZA GUTXITU  
GUZTIEI APLIKATU  
DAKIOKEENA ERABILI  
DUTE EUSKARA  
PLANETATIK**

# "Identitatea indartu ezean, hizkuntzak gal daitezke"

LIZBETH SANCHEZ HIZKUNTZA AHOIKULARIA

Nawat planaren diagnostikoa eta diseinua gidatzeko ardura du Sanchezek.

## **Ze helbururekin hasi duzue hizkuntza plana?**

Tosepan kooperatiba elkartean epe luzera begirako plana jarri dugu abian; asmoa da nawat eta totonaka hizkuntzak eta nortasuna indartzea. Plan honek sei ardatz nagusi izango ditu; ardatz horiek Emunekin eta Garabiderekin elkarlanean landutakoak dira 2018ko apirilean. Aipatutako sei ardatzak dira: instituzioa, hezkuntza, corpora, komunikazioa, kultura eta ardatz epistemikoa. Plan orokor hori lortze aldera, 2019 eta 2020 bitartean beste plan operatibo bat jarri da martxan: hizkuntzak izan ditzakeen oinarriko beharrak asetzea epe motzean Tosepan barruan; eta, horrez gain, hizkuntza eta identitatea batzen dituen proiektuaren oinarriak egonkortzea.

## **Ze erronka dituzue?**

2019an eta 2020an egingo dugun lana izango da, batez ere, nawat hizkuntzaren instituzionalizazioa sendotzea. Hizkuntzaren aktibistak sustatu gura ditugu, eta hiztun osoak sortu. Hau da, kultura ekoizpena egin dezaketena, hizkuntzaren irakasleak, corpusean lan egin dezaketena, komunikabideetako jendea. Erronka izango da momentuan



hizkuntzarendako garrantzitsua dena bermatzea; modu horretan, proiektuaren oinarriak modu egonkorrean finkatu ahal izateko. Gaur egun proiektua nawat hizkuntzarekin hasi baldin badugu ere, gure asmoa ere bada totonaka indartzea.

## **Egoerak badu zerikusirik euskararekin?**

Berdintasunak ikusi arren, ezberdintasun garrantzitsuak daudela uste dut. Uste dut egoera zaurgarrian dagoen hizkuntza bat hitz egiten dugula. Hala ere, erabileraren zaurgarritasuna ez da gune eta maila berean gertatzen.

**"HIZKUNTZA AKTIBISMOA BIZI IZAN DUT EMUNEK ESKAINI DIDAN FORMAKUNTZAN"**

Euskarak duen erronka nagusia da euskara ez izatea jakintzaren edo hezkuntzaren arlokoa bakarrik; baizik eta gune pertsonaletan, familia gunean edo egunerokoan erabiltzeko hizkuntza izatea. Gure kasuan, nahi dugu nawata izatea familia eta komunitateko hizkuntzaz gain, hezkuntza mailako hizkuntza, eremu berrietan erabili ahal izateko, gure hizkuntzan bizitzea ahalbideratuko diguna. **Emunek formatu zaitu aholkulari moduan. Zer ikasi duzu?**

Diagnostiko prozesutik hasi eta hizkuntza planen eraikuntzaraino; eta baita, planifikatua gauzatzen ere. Modu pertsonalean, aldiz, hizkuntza aktibismoa zer den bizi izan dut; egiten denarekiko pasioa; eta, gure proiekturako eskaini didaten aholkuak entzun ditut. Duda barik, oso eskertuta gaude Emunekin; euren jakintza eta esperientzia banatu dute, eta euren lan esparrutik eta geografiatik hain urrun dagoen hizkuntza batekin elkarlanean aritu dira. **Zer eramaten duzu, eta alderantziz, zer dugu zuetaz ikasteko?**

Gure herrialdean kooperatiben jardunak esperientzia handia du; baina hizkuntza kooperazioa zuengandik ikasi dut. Izan dezakegun ezberdintasunen gainetik hizkuntzak batzen gaitu. Guk eskaini dezakeguna, proiektu moduan, hizkuntzak eta identitateak izan dezaketen erlazioa da. Uste dugu identitatea indartu ezean hizkuntzak galtzeko arriskua duela. ■■■

# GIPUZU-

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



IZEN  
KO



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN



IBAN PEREZ HERNANDEZ

## Datorren urtean...

**O**ñatiarra eta urte amaiera. Kirolaria eta kirolzalea. Uste dut txoko honetan idaztea eskatu didatenean esku beltz bat egon dela atzetik ni aukeratua izateko.

Gaur, ordu askotan igaro dudan toki baten inguruan hitz egingo dizuet: Oñatiko igerilekuaz, Zubikoa kiroldegian kokatua dagoena eta urte bat barru erabat ezberdina izango dena.

Sentsazioa izaten dut toki batean urte askotan egoten bagara, hor sortzen badira aldaketak oso gutxi jabetzen garela horietaz. Aldiz, noizbehinka bisitatzeko badugu herri edo hiri bat, segituan antzematen ditugu paisaiak jasan dituenak.

Obra bat hasten dute gure etxe ondoan eta hilabete

batzuen buruan edo urte batzuk pasa ostean, eraikin bilakatzen da. Hori bai, polita izaten da pentsatzea zein izan daitekeen azken emaitza lan horiek iraun bitartean. Nik, batzuetan, sekulako *pelikulak* egin ditut nire buruan.

Gero, onerako edo txarrerako izango diren aldaketa horiek... batek daki. Oñatiko kasu honetan, alderdi positibo bat izango du. Herritar askok egindako eskaria izan da urte askotan gure kiroldegi zahar maitea eguneratzea.

### URTEBETE ITXARON BEHARKO DUTE OÑATIARREK BERAIE KIROLDEGI BERRIA IKUSI ARTE

Ordu on asko pasa ditugu barruan. Oroitzapen politik eramaten ditugu. Baina, batez ere, igerilekuko erabiltzaileentzako zen amesgaiztoa amaitzea espero da. Bost kaletan zegoen espazioa zabaltzea bederatzi kalera sekulako aldaketa izango da.

Hori bai, eman den soluzioa... denbora batean kostatuko zaigu ikustea balekoa den edo... Momentuz, urtebete itxaron beharko dute oñatiarrek beraien kiroldegi berria ikusi arte –animo asko horrek dakarren guztian–.

Bitartean, espero dut aukera ematen badidate txoko honetan nire irudipenak kontatzea, eta ikusten badut nire inguruko beste eraldaketa sakonen bat, ziurrenik ere hemen aipatuko dut. Izan ondo! ■■■

## EZTABAIDA

### Obesitatearen gaitza, jomugan

Gehiago dira obesitateak eragindako osasun arazoez hiltzen direnak auto istripuan baino eta geroz eta gehiago dira obesitatea duten haurrak. Askok dira atzean dauden faktoreak.



MIREIA ALBERDI  
NUTRIZIONISTA

"Obesitatea gaixotasun multifaktoriala da eta prebentziorako arlo ezberdinak landu behar dira: publizitate legeak egin, ultraprozesatuei zergak igo, osasun etxeetan dietistak egotea, heziketa nutrizionala landu... adibide txikiak izango lirarteke".



DANI SANCHEZ  
HERRITARRA

"Egun, obesitatea gure gizartean zabaltzen ari den arazo larria bilakatzen ari da. Egoera hau aldatzeko, ezinbestekoa da neurri zorrotzak hartzea; haurren kasuan, adibidez, gurasoek kontrol handiagoa izan behar dute elikadura kontuetan".



## XIXILI

HELENA AZKARRAGAURIZAR



## ERREMATEA

MAIDER  
AZKARRAGA-URIZAR

## Zubiak

**P**asa berri dugu Durangoko Azoka, euskal kulturaren arnasgune diren lau egunak, eta ahaztu ditugu biharamunerako gainontzeko 361ak; kulturak, sormenak eta sortzaileek 365 eguneko oxigenoa behar dutenean. Kontsumitzaileok horren ardura ere badugun arren, uste dut erakundeek badutela gai honetan zer sakondu.

Badakigu kultura herritik sortzen dela, baina herriak ere baliabideak behar ditu sortzen den hori aurrera ateratzeko. Baliabide horiek, baina, ez daude denen eskura eta dauden asko prekarioak dira.

Honako hau irakurri nion Canori literatur sariengururuan: "Errudun sentitzen delako ematen du saria erakundeak, ez duelako ezer egiten kulturaren alde, eta urtean behin egiten duen penitentzia da, konfesatzera joatea bezala".

Kultura ez dute sariek salbatuko, ezta hiru eguneko arnasguneek ere. Herrigintzaren eta erakundeen arteko zubiak eraiki behar ditugu, honek irautea nahi badugu.

Zubiak eraikitzeko erronka dugu.

Pentsa dezagun, beraz, nola eraiki zubiaren bi hanken artekoa. ■■■

ALICIA ETXANIZ  
HERRITARRA

"Esango nuke gero eta garrantzi handiagoa ematen diogula gure osasunari, eta bai fisikoki, bai mentalki zaintzearen garrantziaz kontzienteago gara. Dena den, uste dut gai hauek bistaratu eta hitz egin behar direla; batez ere, prebenitzeko asmoz".

UNAI SERRANO  
PSIKOLOGOA

"Obesitatea ondo ez doan zerbaiten adierazlea da, ikusi daiteke eta gaizki ikusita dago. Zer egin? Hasteko, ez estigmatizatu. Irtenbidea ez da gizabanakoaren kontua. Baina banakako tratamenduan, esango nuke antsietatea dagoela kasu askoren atzean".

# Zenbat erronka, ze handia den mundua eta... ze urriak gure erantzunak



URKO LOPEZ EKONOMIALARIA

**E**gun bizitzen ari garen testuingurua oso aldakorra da, ez dugu ezer berririk mahai gainean. Gure ekonomiak eta gizarteak gero eta erronka gehiago ditu; iraganetik datozenak zein koiuntura sozioekonomikoak sortuak. Azken urteotan –batzuentzat, mediatikoki, asteotan– mahai gainean daukaguna iraunkortasunaren gaia da. Ze eredu sozioekonomiko dugu mahai gainean?

Baliteke esango dudan honekin adiskide askorik ez egitea, baina hemen hainbat gogoeta gai honen inguruan.

**Alde batetik**, orain? Orain hasi behar dugu honen inguruan? Ez aurreko urte edo hamarkadetan, hainbat txostenek eta adituk hainbat egoera aurreikusten zutenean? 1987an, Brundtland Txostenak honen inguruko zertzeladak baino gehiago azaleratu zituen. Eta ordutik hona 32 urte igaro dira eta okerrera egin dugu, herrialde guztietan.

Beste aldetik, gauzak aldatu behar direla ados gaude, inkestek hala diote eta egun esku artean ditugun datuek ere bai. Gaia zera da: gure ereduak, bai ekonomikoa eta baita gizarte-eredua, horren aurkakoak dira, hein handi batean. Honen arazoa zera da:

aldatu behar dugula argi dugun arren, ez dago ideia argirik hartu beharreko bidearen inguruan. Onak gara arazoak identifikatzeko orduan; ez horrenbeste irtenbideak adosteko eta martxan jartzeko orduan.

**Adibideak barra-barra:** azken urteotan auto elektrikoa iraunkortasunaren paradigmatiko bat bihurtu da mugikortasunari dagokionez. Mugikorren mundua ere hor tartean dago, zaharkitze pragmatuak goia jota hiru urtean behin mugikorra aldatu behar izatea dakar, bai aplikazioengatik zein osagaien iraunkortasunagatik. Bi ondasun hauen ekoizpena oso kutsagarria da –batez ere, hainbat atalen ekoizpena; litiozko bateriak, adibidez–; kasu askotan, azken produktuan jarri dugu fokua, ez bere ekoizpen-prozesuan. Honako hau produktu tradizional asko eta askorekin ere gertatzen zaigu, industrialak zein etxerakoak. Ez dugu goi teknologiarra soilik jo behar.

Argi dago gure eredu sozioekonomikoak gabezia asko erakusten dituela. Gero eta konektatuago gaude, gero eta globalagoak gara, baina hori lortzeko bidea ez da garbia izan, eta oinarri sendoak jarri dira iraunkortasun mugatua duten

ekoizpen- eta kontsumo-ereduen gainean. Honetan ez dute mesede handirik egiten aldaketa klimatikoa eta bere eraginak ukatzen dituzten pertsonak eta gobernuek. Guztiok hitz egiten dute orain Trump-en inguruan, gaur egungo gaia delako, baina oso ahots gutxi entzuten dira Ameriketako Estatu Batuek Kiotoko Protokoloarekiko izan duten jarrera aldaketa etengabeaz; protokolo honek ez du CO2 emisioen inguruko eztabaida bakarrik sortzen, baizik eta horren atzetik dagoen guztia, ekonomia- eta ekoizpen-ereduak barne. AEBek administrazio errepublikanoa izan dutenean Kiotoko Protokoloan ez sartzeari erabaki izan dute, eta administrazio demokrata izan dutenean, aldiz, harrera hobea izan du. Ez da serioa, eta ez dira falta diren bakarrak: Saudi Arabia, Armenia, Benin, Birmania, Cabo Verde, Txile, Ekuador, Gambia, Irak, Kazakhstan, Ipar Korea, Hego Korea, Laos, Mazedonia, Moldavia, Nikaragua, Nigeria, Siria, Yemen, Zambia... Petrolioak, kobrea eta beste hainbat lehengai daude tartean, gure egungo ereduaren euskarri.

**Kuriosoa da**, baita, Kiotoko Protokoloa sinatu arren, saihebidetuek ere ikustea.

Administrazio askok iraunkortasunaren inguruko proiektuetara batzeko asmoa erakustea eta, aldi berean, *fracking*-a bezalako metodoak baimentzea honen adierazgarria da, munduan barrena, ez gurean bakarrik. Eta honek guztiak, azken finean, egun dugun eredu sozioekonomikoari erantzuten dio.

Bukatzeko, Greta Thunberg, nola ez hitz egin hain pertsonaia mediatikoaren inguruan? Alde batetik, mirestekoa da nerabe honek egindako lana, baina, bestetik, kezkarria iruditzen zait hain gaztea izanik bere gain hartu duen edo/eta jarri zaion pisua. Mesedez, 16 urte ditu, eta, azkenaldian ikusi zaion ekintzen agendari erreparatuz, adin hori izateko astirik izan al du? Bere lagunekin jolasteko edo kalera ateratzeko? Ikasten aritzeko? Berak hainbat aldiz esan du haurtzaroa "lapurtu" egin diotela; zentzu honetan, gai eta erronka askotarako ikonoak erabili izaten diren arren –ez naiz ikonozalea, askotan bihurria izan daitekeelako–, ze punturaino lapurtu zaio haurtzaroa iraunkortasuna zaintzen ez duen eredu baten bidez eta zein arte pertsona heldu

gutxi duten nazioarteko lan agenda batekin eta ez nerabe baten bizitza-agendarekin? Ez nabil bera kritikatzeko ari, inola ere ez, baina bai nerabe baten inguruan sortu den atmosfera. Bide batez, kontraesanak dauzka ingurumena zaintzeko katamaran batean etortzeak, eta, itsasontzi honen materialei erreparatuz gero, berauen ekoizpen-prozesua garbi izatetik urruti egotea... Hausnarketa interesgarria litzateke nerabe ausart honen inguruko atmosfera horrentzat.

**Azken finean**, ekonomikoki eta gizarte moduan dauzkagun erronka eta kontraesan askori erantzuna aurkitu behar diegu. Alde batetik, gure kontsumo-eredua; bestetik, gure ekoizpen-eredua.

Hainbat alternatiba dauzkagu mahai gainean –ekonomia zirkularra, ekonomia berdeak...–, baina honek epe luzera begira egin beharreko apustua eskatzen du, eta ez instituzionala soilik, baizik eta kontsumitzaile zein ekoizle moduan ere bai.

Zenbat erronka ditugun... eta ze urriak diren gure erantzunak oraindik ere... ■■■

## **EZ DUTE MESEDERIK EGITEN ALDAKETA KLIMATIKOA UKATZEN DUTEN PERTSONEK ETA GOBERNUK**

# "Euskalduna izatea erabaki partikularra da, nahi izan behar da"

XABIER AMURIZA BERTSOLARI ETA IDAZLEA

1980an eta 1982an Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelkun, kantarietako letra eta bertso ezagun asko egindakoa, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria eskuratu berri, euskararen etorkizunaz mintzo da; egiten diren ekintza guztiak baztertu gabe, norberaren borondatea ezinbestekoa dela argudiatzen du.

Testua: **Imanol Beloki**. Argazkiak: **Imanol Beloki eta Xenpelar Dokumentazio Zentroa**.

**B**ertsolari, idazle, itzultzaile eta ikerlari lanetan ezaguna bada ere, hori baino gehiago da Xabier Amuriza. Euskal kulturari egin dion ekarpena izugarria izan da, eta horren adierazle da jaso berri duen Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria. Gaur egun, erretiroa hartuta dagoen arren, gauza puntualak egiten dihardu, bere gustukoak direnak, eta baditu makina bat istorio eta pasarte kontatzeko, gainera.

***Neska bat leku inposiblean da idatzi duzun azken eleberria. Zamorako apaiz kartzelan zazpi urte inguru eman zenituen preso, eta han emandako egunak kontatzen dituzu, egiazko gertaerak eta fikzioa uztartuz; zein asmorekin?***

Frankismo garaian Zamorako apaiz kartzelan emandako egunak fikzionatu ditut eleberri honetan. Egiazko gertaera batzuetan oinarrituta dago, baina badu fikziozko osagai oso nabarmen bat: neska baten presentzia kartzela hartan. Neskarena ez zen gertatu, baina gertagarria zen. Zamorako kartzelako gure ihesaldiak porrot egin zuen, baina nik ez nuen porrot soil bat kontatu

nahi. Ihes egiten saiatu ginen, tunela eginez; hala ere, bukatu arren, azken momentuan porrot egin genuen. Hala, tunelgintza hura kontatzen dut xehetasun guztiekin, kontaera literario bat izaten saiatuz, kronika bat baino gehiago da. Fikzioan pertsonaia bat dago, neska bat leku inposiblean dagoena. Egin genuen tunela porrota izan zenez, elementu irabazle bat gura nuen sartu eleberrian, eta hori da istorio honek fikziotik duena. Pertsona bat kartzelan sartze hori, pixka bat errealtatean edo posibilitateen barruan ikusiz, gertagarri izateko helburuaz. Nolabait esateko, gure tunel horren garaitik 13 urtera, Joseba Sarrionandiak eta Iñaki Pikabeak ihes egin zuten bafle banatan Martuteneko kartzelatik kanpora. Orduan, pentsatu nuen baliabide hori kanpora ateratzeko bazen, barrurako ere izan zitekeela, polita irudituz zitzaidan. Horri buelta emanda, gure abentura lehenago gertatu zen, eta gure garaian ez zen susmagarria; hala balitz, Sarrionandiak eta Pikabeak ez zuten alde egingo kartzelatik. Zailtasun nagusia ez da pertsona bat, gizon edo emakume, kartzelan sartzea, neska hura leku inposible batean, gizonen eta apaizen kartzela batean gordetzea baizik.



Xabier Amuriza, Antzuolako Olanan etxean, hitzaldia egin aurretik.

**Euskararen Egunean, Antzuolan, eleberriaren gainekoak izan zenituen hizpide. Hizketari baino kantuari toki handiagoa emanda. Kartzelan bizitako bitxikeriaren bat edo beste eskaini zenuen; Carrero Blancoren hilketarena, esaterako.**

Tunelarena 1971n izan zen, Burgosko epaiketaren ostean. Han, zazpi lagun geratu ginen guztiz isolaturik. Bakarren bat geratu zen kondena txikiren batekin, baina horiek Madrilera eramaten zituzten gurekin harremana mozteko. Gure eskaria preso politiko normalen moduan tratatuak izatea zen, eta ez isolamendu hartan. Eskariak bai, baina kasurik ez. Beraz, zenbait ekintza egin genituen: kartzelari su eman ahal genuen txikiziorik handiena sortuz, gose greba... eta ondorioa zigorra izan zen, lau hilabeteko isolamendua. Bitarte hartan, abenduaren 20an gertatu zen Carreroren hilketa. Funtzionarioak besoko beltzarekin hasi ziren etortzen, eta ez ziguten ezer esan gura. Patioko musika entzuten genuen, eta egun hartan, hileta-musika ere jarri zuten. Guk lagun bat genuen mutinean eta gose greban parte hartu ez zuena, eta, guztiz ebakita zegoen kirol egunkari batean, Zamorako Erregionaleko futbol partidu baten gainekoa irakurtzen ari zela, Carreroren hilketagatik partidua atsedendian minutu bateko isilunea egin zutela irakurri zuen. Hiru egun oso eta gehiagoren ostean jakin genuen gertatu zena.

**Literaturaz gain, bertsolaritzari eta euskal kulturari egin diozun ekarpena ikaragarria da. Hala ere, nola ikusten duzu gaur egun euskal kultura eta bertsolaritza. Bide onetik doaz?**

Bertsolaritza urrun ikusten dut. Hala ere, jarraitzen dut, etxean badudalako alaba bertsolaria, eta emaztea Bizkaiko Bertsolari Elkartearen ari da, baina bat-bateko plazako bertsolaritza utzita daukat. Bertso-ekintza, bestalde, kantaren baterako hitzak, idatziak... egiten ditut. Indartsu ikusten dut, bertsolari asko daude gaur egun, emakumeak asko ugaritu dira, eta asko aurreratu da. Alde horretatik, aldatetako emankorrak izan dira, eta bertsozaleen masak hor jarraitzen du. Euskararen erabilerrari dagokionez, bestalde, aspaldian jaso ditudan datu batzuk ilunak izan dira, eta horrek kezkatzen nau.

**Euskararen bueltan bertsolaritzak BECeke txapelketan izaten duen moduan, zerk batzen du hainbeste Euskal Herrian? Zein da bertsolaritzaren sekretua, hainbeste euskaldun batzeko?**

Hizkuntza euskara izanik, entzuleak nahitaez euskaraz dakitenak izan behar dira bertsolaritzan.

Bertso-finalak gustatzen zaie euskaldunei, eta lehiak asko tiratzen du. Bola handitzen joaten da, gehituz doa indarra, olatua handitzen da, eta fenomeno hori gertatzen da. Bertsolaritzaren datuak onak dira: saio asko, bariazio ezberdinak daude, adin ezberdinetakoak... Hala, egoera ona da, eta baikorra. Garai batean, beti jartzen nuen honako adibide hau: bertsolaritza erlatiboki oso arrakasta handian dago, baina hau barku bat da, eta bertsolaritzak zaleak ditu, garrantzia du, badu jarraipena, baina barku hori nora doan beste kontu bat da. Hala ere, hortik urrun bizi naiz gaur egun.

**Kantugintzatik eta bertsolaritzatik zein duzu une gogoangarriena, kuttunena?**

Lehenengo txapelaren bila joan nintzeneko garai hura esango nuke izan zela nire bertsolaritzako momentu inportanteena. Gainera, inflexio-puntu bat markatu zuela diote... baina nire ibilbideko une gorenetakoa izango zen. Hala ere, bizitzan zehar momentu kuttun asko daude. Esaterako, sotana eta guztiz apaiza nintzela kantatu nuen lehenengo aldia, eta baita sotana barik Lekeition San Cristobal egun batez lehenengo aldiz kantatutakoa. Abestiei dagokionez, bestalde, Imanolen *Mendian gora haritza*; Oskorrirentzat idatzitako *Euskal Herrian Euskaraz*; Tapia eta Leturiarentzat egindako *Hik lan eta nik jai*; Mixel Ducauren *Lurra*... Bakar bat aukeratzea zaila da, motibo bategatik edo besteagatik hainbat ditut gogoko. Bai bertsoak eta bai kantak.

**Euskararen Eguna pasa berri, ekintza mordoa izan dira Euskal Herriko herrietan. Euskaraldiaren bigarren aldia ere badator... Ekimen horiek ezinbestekoak dira hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera areagotzeko?**

Datu objektiboak behar dira galdera horri erantzuteko. Ekintza kolektibo handiak dira horiek, eta egite horiek uhinak bezala noraino luzatzen diren eta zerbait uzten duten edo ez jakiterik oraindik ez dago. Gauza ederra da, baina hizkuntzaren joeran aldatzen duen erabait den, denbora batera ikusi behar da. Gauza asko egiten dira euskararen alde, eta hori oso ondo dago, baina gero, erabilera datuak ez dira hain baikorrak.

**Euskal kulturgintzaren transmisioari dagokionez, bestalde, gaur egungo gazteek badute gogoa ikasteko, euskararen alde lan egiteko... indar handiagoa egin beharra dago?**

Hizkuntzaren erabilerran gazteen eta ez hain gazteen artean ez ditut datu onak sumatzen



Xabier Amurizak lehenengo txapela irabazi zueneko.



Amuriza eleberraren berri ematen Antzuolan.

**"TXAPELAREN BILA JOAN NINTZEN  
GARAIA IZANGO ZEN NIRE BERTSO-  
IBILBIDE OSOKO UNE GORENETAKOA"**

**"GAUZA ASKO EGITEN DIREN ARREN,  
EUSKARAREN ERABILERA DATUAK  
EZ DIRA HAIN BAIKORRAK"**

**"MANUEL LEKUONA SARIA  
JASOTZEAGATIK POZ HANDIA HARTU  
DUT, USTEKABEAN JASO DUDALAKO"**

kalean. Nire burua arduratzen horietatik aparte jartzen saiatzen naiz; izan ere, bizimodu nahiko erretiratua dut. Korrontzirekin saioaren bat, Antzuolan eskainitakoa moduko saioaren bat edo beste, *Berria* egunkarian zutabea idaztea astean behin, Euskadi Irratiko programan hamabostean behin... Gauza puntualak egiten ditut, gustukoak. **Rikardo Arregi kazetaritza sari-banaketan nabarmendu dituzte Ttap aldizkaria digital multimedia, *Egunean* behin joko... Euskararen etorkizuna teknologia berriekin lotuta dator?**

Kontradikzio txiki bat dago hor. Teknologia aldetik hizkuntza aurreratuenetako bat izango da gurea, hala diote, baina gero, erabilera, oinarrian, ez dago korrelaziorik. Teknologiarekin pertsonaren bat edo beste erakarriko duzu euskarara, baina hizkuntzarako joera edo borondate kultural, politiko eta afektiboa ez duena ez duzu teknologiarekin erakarriko. Euskaltzaleak beti izango dira, baina horiek bakarrik ezin dute hizkuntza baten masa bat osatu. Hala, gogorik eta borondaterik ez badago, euskaldun izateko asmorik ez daukana ez duzu erakarriko ezerekin.

**Euskalgintza modernoaren aita zarela diote askok eta horren adierazle da jaso berri duzun Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria. Bertsolaritzan eragindako "iraultzarengatik" eta literaturan, itzulpengintzan eta euskararen egindako lanarengatik. Aitortza handiko saria, duda barik.**

Sari handia izan da, eta aita diozu, baina aitajauna ere izan naiteke. Poz handia hartu dut Manuel Lekuona saria jasotzeagatik, eta hori ustekabearen etorri delako izan da. Izen handiko saria da, eta ez da txapelketa bat irabaztean sortzen den moduko poz esplosiboa; poz barea eta sakona da, eta ez da edozein erakunde, gainera... Lagunek zoriondu egin naute, poztu egin dira nigatik, eta horrek asko poztzen du. Lagunen poza bezalako poz erantsirik ez dago norberarentzat.

**Zein izan behar da euskal gizarteak jaso beharreko mezua, gomendioa?**

Borondate politiko, afektibo eta kulturala behar dela esango nuke. Hori ez dagoenean, ez dago zereginik. Badago oraindik, baina hor dago gakoa. Euskara indartzeko ekintza asko egiten dira, baina euskalduna izatea norberak erabakitzen du, erabaki partikularra behar da. Hori da sustatu behar dena. Euskalduna izatea erabaki bat da, nahi izan behar da, gustatu egin behar da, eta atxiki behar zara praktikan, hor ikusten dut nik euskal masaren ahultasuna. ■■■

# Erretzeak hil egiten du

TABAKOA ETA MINBIZIA



**ANE UGARTE** OTORRINOLARINGOLOGOA  
ARGAZKIA: RAY REYES

Buruko eta lepoko minbizia aipatzean, ahoa, faringea edo eztarriko pareta, laringea edo ahots kordak eta sudur hobietan agertzen diren tumoreez hitz egiten dugu.

Italiarekin batera Espainiar Estatuak da Europa mailan intzidentzia handiena duen herrialdea.

Minbizi mota horrek, bestalde, seigarren postua hartzen du Espainia mailan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan intzidentzia bereziki handia da.

Hurrengo urtean 10.000 kasu diagnostikatzea aurreikusten da, gehienak 45 eta 65 urte bitarteko biztanleen artean.

Bestela esanda, estatistiken arabera, Debagoienean hamabi kasu berri diagnostikatuko dira hurrengo urtean.

## **Alkoholarekin arriskutsuagoa**

Tabakoa eta alkohola dira minbizi kasu horien erantzule nagusiak.

Azken urteetan giza papilomaren birusak –ingelesez HPV– daukan papera aztertzen ari dira erretzaileak ez diren pertsonetan duen eragina ulertzeko.

Tabakoak hogeitaz biderkatzen du buruko edo lepoko minbizia garatzeko arriskua. Alkoholak, berak bakarrik, ez du minbizi mota hori sortzeko gaitasunik erakutsi, baina tabakoarekin batera kontsumitzen denean horren eragina lau aldiz biderkatzen da; izan ere, tabakoaren kearen substantzia kartzinogenikoen disoluzioa errazten du.

Artikulu honetan aurkitu dezakegun datu garrantzitsuenak da aipatutako arrisku faktoreak moldagarriak direla, eta, ondorioz, erretzeari utziz edo alkoholaren kontsumoa murriztuz minbizi kasu asko saihestu litezkeela.

## **Diziplina anitzeko espezialistak**

Tratamendua diziplina anitzeko espezialista talde baten esku egoten da kasu gehienetan. Otorrinolaringologoa ebakuntzaz arduratuko da, onkologia taldea kimioterapiak eta erradioterapeutak erradioterapiak.

Kasu bakoitzaren arabera teknika desberdinak konbinatu behar dira. Horiez gain, beharrezkoak izango dira erradiologoak eta erizain espezializatuak.

Tratamenduaren ondorengo errehabilitaziorako, berriz, ezinbestekoa da nutrizionista eta logopeda taldearen lana, hitz egiteko eta irensketa funtzioak berreskuratu ahal izateko.

## **Azkar antzematea, berebizikoa**

Diagnostikoa egiteko garaia funtsezkoa da gaixoaren biziraupenari buruz hitz egiteko.


Azken ikerketen arabera, hasierako estadioetan diagnostikatutako gaixoen %90eko bizi-itxaropen tasa erakutsi zuten diagnostikoa egin eta bost urteko epean.

Tumorea estadio aurreratuagoetan antzemandako kasuetan, ordea, gaixoaren bizi-itxaropena %43koa izan zen bost urteko epean.

Beraz, berebiziko garrantzia dauka alarma sintomak ondo ezagutzea, batez ere erretzailea izanez gero.

Sintomak agertzen badira gomendatzen da otorrinolaringologoaren kontsultara joatea, betiere hiru aste baino gehiago mantentzen badira edo familia medikuak agindutako tratamenduarekin desagertzen ez badira.





**TABAKOAK HOGEI  
ALDIZ BIDERKATZEN  
DU BURUKO EDO  
LEPOKO MINBIZIA  
GARATZEKO  
ARRISKUA**

**Alarma sintomak**

Ezagutu beharreko alarma sintoma nagusiak dira:

- Eztarriko mina eta irensteko arazoak.
- Irensteko mugimenduarekin okerrera egiten duen belarriko mina.
- Aho barrunbean agertzen diren ultzerak edo odola botatzen duten lesioak.

- Aho barrunbean edo mingainean agertzen diren lesio zuriak. Kasu gehienetan, dentistak ikusten ditu.
- Ahotsaren aldaketa, betiere infekzio batekin erlazionatuta ez badago.
- Lepoan konkorrak agertzea, batez ere gogortu egiten badira edo hazkunde azkarra baldin badaukate.

- Aipamen berezia merezi dute egur hautsarekin edo nikelarekin lan egiten duten profesionalek; izan ere, sudur hobietako tumoreak garatzeko arriskua daukate. Kasu horietan, alarma sintomak izango lirateke sudur hobi bakarreko blokeoa edo odol isuria. ■■■

# Txakurren jabe eta lagun

ITOITZ ARMENDARIZ, 'MUSER'-A

## ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: I.A.

Beste esperientzia bat bizi izan du Itoitz Armendariz *musher* eskoriatzarrak pasa den asteburu honetan, Soriako Cabrejas del Pinar herrian. Izan ere, 150 kilometroko proba batean parte hartu du lehen aldiz, zortzi txakurrekin. Hala ere, ezin izan du bukatu. "Gogorra izan zen, eta lehen atsedean-gunean erretiratu egin nintzen, 60. kilometroan. Hasieran ondo joan ginen, azkar, 35. kilometro ingururaino, baina txakur bat lesionatu zitzaidan eta zaildu egin zitzaigun guztia. Ibilgailuan sartu behar izan nuen, eta, tira egiteko txakur bat gutxiago edukitzeaz gain, 30 kilo gehiago pisatzen zигun ibilgailuak. Beraz, erretiroa hartzea erabaki nuen, bost ordu inguru egin ostean", azaldu du.

Esperientzia moduan, ordea, "oso polita" izan dela aitortu

du. "Hasiera, adibidez, oso bitxia izan zen, ezohikoa. *Musher* guztiok zaku barruan egon behar izan ginen, arropa barik, eta irteera eman zutenean, jantzi egin behar izan ginen, zakua eta esterila jaso, txakurrei arnesa jarri eta abiatu. Lo egongo bagina bezala izan zen, nahiz eta 16:00ak izan".

Lur gainean motibazio apur bat behar zuela-eta erabaki zuen proba "gogor" horretan parte hartzea. "Urte asko daramatzat honetan, eta nabaritzen nuen lur gaineko entrenamenduak motibazio faltarekin egiten nituela. Beraz, proba erreferente bat behar nuen entrenamenduetan motibatzeke".

### Lur gainean eta elurretan

*Mushing*-a bi lurzorutan praktikatzen da. "Azarotik Gabonak arte izaten dira lur gaineko probak, eta Gabonetatik martxora arte, elurretakoak", dio

Armendarizek. "Entrenatzen abuztu-irail inguruan hasten naiz, goizaldean freskatzen hasten denean. Izan ere, txakurrei ez zaie komeni lehiatzea 12 gradutik gora, oso sentsibleak direlako temperatura altuekiko. Azaroan hasten dira lur gaineko probak, eta gero, elurretako probetan zentratzen naiz, normalean. Niretzako garrantzitsua den proba baino 15 bat egun lehenago elurretan entrenatzen hasten naiz, txakurrak ohitzen joateko".

### Euskadiko txapelketa asteburuan

Asteburuan, lur gaineko Euskadiko Txapelketan ariko da Armendariz, Armentian (Araba). Bost kilometroko bi proba izango dira, zapatuan 16:30ean eta domekan 10:00etan. Otsailean, Frantziako Pirinioetan jokatu den Pirinean Race egingo du, elurretan. Astebeteko proba izango da, hilaren 3tik 9ra. ■



Linzako proban, 2014an.



Espainiako lur gaineko txapelketan, 2012an.



Armendariz, elurretako proba batean. Txakurrak, esfortzu betean.



Bereteko proban, 2014an.



Armendariz, txakurrekin.

# Kirol berri bat jaio da...

'BARATZING'-A



**AITZIBER OTEGI** KIMU BAT

ARGAZKIA: HEATHER GILL

Bizepsak, kuadrizepsak eta pektoralak landu. Erlaxatu. Estresa eta antsietatea gutxitu. Naturarekin kontaktua berreskuratu, eta bere ziklo naturalekin bat egin. Kultura, adin, genero edo hizkuntza askotariko jendearekin kontaktu berriak egin.

Lurra ukitu, barazki osasuntsuak jan, haurrak naturara gerturatu. Eguzki izpiak xurgatu, neguko haize freskoari aurre eginez gorputza berotu, kultura askotariko jakiak ezagutu.

Psikomotrizitatea landu. Zenbat onura, ezta?

Aipaturiko onura horiek guztiak kirol batek dakartzala esango banizu, sinistuko zenidake? A ze pagotxa alderdi horiek guztiak aldi berean lantzea, ezta?

Zein kiroldegitan ematen dute kirol berri hori? Eta horrenbeste abantaila baditu garestia izango da, ezta? Irakasle partikular bat beharko duzu zuretzat?

## 'Baratzing'-a, kirol berria

Hori da! *Baratzing*-a da eta Euskal Herriko herri guztietara zabaltzen ari den kirol berria

da! Martxan hasteko behar dituzun gauza bakarrak dira 30 bat metro karratuko lur zati bat eta aitzur bat.

Ez du ordutegi jakinik eta nahi duzunean joan zaitezke. Landaretxo txiki batzuk erosteko beharko dituzun sosa, gainera, xentimo batzuk besterik ez dira izango.

Ez da azken modako arroparik behar. Armairuan dituzun arroparik zaharrenak eta baldarrenak jantzita nahikoa duzu. Erosoak izatea besterik ez duzu behar.

Beste kiroletan ez bezala, berdin dio ileak zabar dituzula bukatzea edo goitik behera lurrez zikinduta joatea etxera. Hemen ez dago modarik.

Eta ez dago irakaslerik. Liburu bat, ikastarotxo bat eta baserritarrei begiradaxoren bat botatzea nahikoa dira uzta oparo eta osasuntsu bat jasotzeko.

## Izen xeblebreak modan

Orain dela urte batzuk, korrika egiten genuen; orain, berriz, *running*-a. Lehen, bizikletarekin porturen batera igotzea lortzen genuen, baina orain, *cycling*-a edo *spinning*-a egiten dugula esaten dugu.

Mendira maiz joan gara txiki-txikitatik. Orain, berriz,

*trekking*-a egiten omen da. Batzuk patinetearekin ibiltzen ziren kaleetatik, ikaslerik aldrebesenak normalean, baina orain, *skater*-ak omen dira.

Garaiera handienekoak zirenek *baloncesto*-a egiten zuten; badirudi *basketball*-a beste zer edo zer dela.

*Puenting*-a ere modan egon zen, *crossfit*-ak lekua kendu zion arte. Boxeoa baldarrentzat omen zen, baina *kickboxing*-a, orain, neska edo mutil finek ere egin ahal omen dute.

Eta pixkanaka, *twerking*-era ere iritsi gara.

Moda... Hainbat gauzari izen xeblebreak jarriz egiten dugunak balio handiagoa duela dirudi, baina *baratzing*-a ez da moda bat. Beraz, ez du izen berezi horien beharrik.

Bere buruaren promozio handirik egin gabe ere saltzeko oso erraza den kirol bat dugu; izan ere, ona den horrek ez du publizitaterik behar saltzeko.

## Baratze parkeetan, 1.300 lagun

Kutxa Ekoguneko Baratze Parke Sarearen barruan 22 baratze parke ditugu, eta bertan, *baratzing*-a praktikatzen duten 1.300 erabiltzaile inguru, eta haien familiartekoak.

Ez dugu propagandarik behar izan egoera honetara

iristeko. Herri batek besteari begiratzea nahikoa izan da Gipuzkoa baratze parkez betetzeko.

*Baratzing*-a munduko kirolik hoberena delako hasi zaitez zu ere! Martxan hasteko, hauek dira eman beharreko pausoak:

- Joan udaletxera eta eskatu herriko baratze parkean parte hartu nahi duzula. Ez dagoela oraindik? Nola? Egin eskaera idatziz segituan! Ezagutzen al duzu *spinning* klaserik ez duen fundamentuzko udalik? Eta *baratzing*-a ez da gutxiago izango, ezta?

- Jantzi katiuskak.
- Hartu aitzurra.
- *Baratzing*-a praktikatu!

Atsotitz txinatar batek zioen bezala: *Ordubetez zoriontsu izan nahi baduzu, mozkortu zaitez. Egun batez zoriontsu izan nahi baduzu, hil ezazu txerri bat. Astebetez zoriontsu izan nahi baduzu, bidaia ezazu. Urtebetez zoriontsu izan nahi baduzu, ezkon zaitez. Baina bizi guztian zoriontsu izan nahi baduzu, landu ezazu baratze bat. ■■■*



**BIZI GUZTIAN  
ZORIONTSU IZAN  
NAHI BADUZU,  
LANDU EZAZU  
BARATZE BAT**

# Dukiena jatetxean eskaintza zabala



## EDURNE ISAZELAIA

SUKALDEKO ARDURADUNA

IRUDIAK: A.T ETA J.O.

Anbotoko bista ederrekin eta ingurune lasaian dago Dukiena jatetxea. Aramaioko Azkoaga auzoan, Azkoaga Txiki baserrian eskaintzen ditugu gure platerak. Familiaren baserria izan zen egun jatetxea dagoen eraikina eta dagoeneko 25 urte baino gehiago badira berri genuela.

Kalitate handiko produktuak lantzen ditugu; betiere,

bertakoaren aldeko apustua eginda. Platerak prestatzen ere mimo handiz egiten dugu lan, detaile txikiak zainduz. Gertuko tratua jasoko duzue, beti, gurera etorrira.

### Askotariko aukerak

Plater asko ditugu aukeran gure kartan. Batzuk betidanik daude hor, klasikoak dira eta arrakasta izan ohi dute beti. Esaterako: piper beteak itsas zapo eta ganbekin; txipiroiak; bildots-hankatxoak saltsan; bakailaoa piperradarekin pil-pil erara edo

frijituta; legatza eta legatz-kokotea; eta itsas zapoa ere bai. Kartaz gain, eguneko menua izaten dugu astean zehar eta asteburuetan menu bereziak ere eskaintzen ditugu.

### Postre ugari

Postreei dagokienez, etxean egindakoak izaten ditugu: gazta-tarta, sagar-tarta, flanak, ... Arrakasta handia izaten du baita ere postreen dastaketak. Horren adibidea da datorren orrian aurkezten dizuegun ardi-esne budina. ■■■

## Dukiena jatetxea

- **Helbidea:** Azkoaga auzoa, Aramaio.
- **Telefonoa:** 945 44 50 86.
- **E-posta:** dukiena@hotmail.es.



**DUKIENA JATETXEARI ESKER**  
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



## Ardi-esne budina

### Osagaiak (4 lagunendako)

- Litro erdi esne-gain
- Litro erdi ardi-esne
- Bost koilarakada azukre
- Bi koilarakada gatzagi

### Prestaketa

- 1. Esnea eta esne-gaina berotzen jarri eta irakin aurretik sutatik kendu.
- 2. Esne-gainari eta esnari, bero daudela, azukrea gehitu. Ondoren, gatzagia bota.
- 3. Dena ondo nahastu.
- 4. Molde batean jarri eta hozten utzi.
- 5. Platerean jarri, txikitutako almendra jarri gainetik eta ziropa gehitu –gustura–.

Zailtasuna: ● ● ● ● ●

## Aurreko zozketako irabazlea: Ana Maria Urzelai Etxaniz (Elgeta)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Santamasetan dotore-dotore

## BASERRITAR JANTZIAK

### AMAIA ARANEGI

IRUDIAK: KATTAGORRIA ETA PINTEREST

Santamas eguna gerturatzen ari da eta asko eta asko baserritar jantziak armairutik ateratzen ibiliko dira. Urterik urte baserritar jantzeko ohiturak gorabeherak izan dituen arren, ohikoa da Santamas eta Gabon garaian herritarrek baserritar jantziekin kalean ikustea.

Urtetan baserritar jantzien estilo nabarmen aldatu da, gehienbat emakumeena; hala dio Arrasateko Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeko kide Lur Puentek: "Gaur egun, aniztasun handia dago emakumezkoen baserritar jantziaren eta bakoitzaren gustuaren eta momentuaren arabera aukeratzen ditugu jantziak". Askotariko kolore eta formak dituzten jantziak geroz eta ugariagoak dira. Bordatuak ere garrantzitsuak dira emakumeen baserritar jantziaren. Amantalean, azpiko gonetan eta pololoetan edota zapietan ohikoak dira bordatuak. Gizonezkoen jantziek ez dute aldaketa nabarmenik izan, baina geroz eta gehiago dira jantzi berezia soinean eraman nahi dutenak.

### Neurrira egindakoak

Herriko dantza taldeek emanaldi ugari egiten dituzte garai hauetan eta baita urtean zehar ere. Horregatik, ohiko bihurtzen ari da jostun batek neurrira egindako jantziak egitea: "Bakoitzak eman behar dion erabileraren arabera, neurrira egindako jantzia aukera

ona da. Dantzari askok neurrira egindako jantziak ditugu, asko iraungo duten kalitatezko eta ondo geratzen zaizkigun jantziak behar ditugulako".

### Zapi mota ugari


Kolore bakarrekoak, loredunak, ilunak, argiak... Zapietan aniztasun handia dago eta beste elementuen arabera aukeratzen da egokiena. Soineko biziak zapi arrunt bat lagun izan dezakeen neurrira, badira loreak eta kolore biziak dituzten zapiak ere. Norberaren gustuen arabera, buruan zapia eramateak baserritar jantziaren dotoreago egoten laguntzen du askotan: "Baserritar jantziaren funtsezko elementua da buruko zapia. Nahiz eta deserosoa izan, baserritar jantziaren parte da eta ezin daiteke ahaztu".

### Itxurak zaintzea

Garai hauetan, eguraldiak ez du askorik laguntzen eta zail egiten da itxurak zaintzea. Denbora txarrraren ondorioz, askok abarken ordeztuak jartzen dituzte edota alkandoraren gainetik egunerokotasunean erabiltzeko jertse bat. Baserritar jantziak hainbat atal ditu eta guztiak errespetatzea ezinbestekoa dela gaineratzen du Puentek: "Bakoitzak baserritar jantziari edo Santamas egunari ematen dion garrantziaren arabera joerak dira hauek. Bazuentzako, mozorrotzea bezala baldin bada, ulertu dezaket, baina, nire ustez, goitik behera ondo jantzea ezinbestekoa da". ■



Gurasoak eta alaba baserritar jantzita.



Gizonezkoa baserritar jantzita.



Emakumezkoa baserritar jantzita.





Emakumezkoak baserritar jantziekin.



Abarkak.



Umea baserritar jantziarekin.



Gerruntzea (korpiñoa).

# Zeinek kutsatzen du gehien?

IBILGAILU KUTSATZAILEAK

## XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: X.G.

Renove planak indarra hartzen ari dira azken urteetan, eta erakundeak gero eta erraztasun handiagoak ematen ari dira auto zaharrak berriekin aldatzeko.

Baina ez da jada 20 urte dituen auto zahar eta kolpatua distiratsuago eta erosoago batekin aldatzeko laguntza bat. Automozio industriari bultzada emateko instrumentu bat da, eta, aldi berean, ibilgailuen emisio kutsatzaileen kopurua murrizteko neurri bat ere bai.

Berez oso kutsakorrak diren ibilgailuak gutxiago kutsatzen dutenekin aldatzea da helburuetako bat, datu eta ikerketa askoren arabera auto zaharrak direlako emisio kutsatzaile gehien eragiten dituztenak.

### OCU elkartearen ikerketa

Espainiako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak (OCU) berriki kaleratu duen ikerketa baten arabera, hamahiru urte edo gehiago dituzten ibilgailuek berriek baino sei edo zazpi aldiz kutsatzen dute.

Ikerketa Madrilgo M-30 errepidean egin dute, 2019an zehar 376.000 neurketa eginda. Kutsadura neurtzeko bi elementu hartu dituzte kontuan: nitrogeno oxido eta aerosol atmosferiko isurketak. Ikerketaren arabera, 2000 eta 2006 artean matrikulatutako autoek –auto guztien %15– kutsaduraren %50 eragiten dute.

### Dieselen kutsadura maila

Euro 1 araudiarekin matrikulatuko diesel auto batek 1,5 gramo nitrogeno oxido

isurtzen ditu kilometro bakoitzeko eta Euro 6 araudiarekin matrikulatutako batek, ordea, 0,19 gramo. Aldea ere nabaria da aerosolen kasuan: Euro 1 araudikoek 0,11 eta Euro 6koek, berriz, 0,01.

### Gasolinadunen kutsadura maila


Alde horiek ere oso nabariak dira gasolina erregaia erabiltzen dutenen artean.

Euro 1 araudipean matrikulatutako gasolina auto batek 0,91 gramo nitrogeno oxido isurtzen ditu kilometro bakoitzeko eta, aldiz, Euro 6 araudipean matrikulatutakoek, 0,12. Bitxia da gasolina motordun autoetan ez dagoela apenas alderik aerosol atmosferikoen isurketetan. Euro 1 araudikoek 0,01 gramo isurtzen dituzte eta Euro 6koek ere berdin: 0,01. ■

## Gakoa ez dago erregai motan

Jakina da diesel autoek gehiago kutsatzen dutela. Auto zaharretan, %60 nitrogeno oxido gehiago emititzen dute dieselek gasolinakoen aldean. Baina ikerketak garbi uzten du kutsadura kopuruaren gakoa ez dagoela erregai motaren baitan, motorren adinean baizik; Euro 6 araudidun autoek Euro 1ekoek baino %87 gutxiago kutsatzen dute.





**ERAKUNDEAK GERO  
ETA ERRAZTASUN  
HANDIAGOAK EMATEN  
ARI DIRA AUTO  
ZAHARRAK BERRIEKIN  
ALDATZEKO**

# Aimar Elortza Gorrotxategi

**JONE OLABARRIA**

IRUDIAK: AIMAR ELORTZA

Gaztetatik, kamera eskuan duela, egunerokoak lagatzen dituen oroitzapenak biltzeko afizioa du Aimar Elortza Gorrotxategi arrasatearrak. Uneak irudi bidez batu eta gertukoekin partekatu ohi ditu. **Nondik datorkizu argazkitarako afizioa?**

Gaztetatik datorkit. Batxilergoa egiten nengoela Argazkilaritza irakasgaia izan genuen, eta orduan hasi nintzen saltseatzen. Bigarren eskuko kamera bat erosita hasi nintzen. **Jaso duzu formakuntzarik?**

Institutu garaiko ikastaro hartaz gain, ez dut bestelako formakuntzarik jaso. Nire kontura ikasi dut, behin eta berriz saiaturaz. Dena den, Artgazkik antolatutako edizio ikastaro batean parte hartu nuen orain dela gutxi.

**Zer duzu bereziki gustuko argazkiak ateratzerakoan?**

Uneak harrapatzea gustatzen zait, baina ez dut bereziki elementu baten edo bestearen aldeko apusturik egiten. Mendia, paisaia, jendea,.. Normalean, gertukoak harrapatzen saiatzen naiz, norberaren esentzia argazkian lortu eta argazkian islatzen. Azken finean, momentu jakin bateko oroitzapenak gordetzeko modua ere bada.

**Teknika aldetik, nola egiten dituzu argazkiak?**



Reflex kamera bat dut eta objektibo simple batekin atera ohi ditut irudiak. Flasha, esaterako, ez dut sekula erabiltzen, eta argi naturala baliatzen saiatzen naiz. Zoom handirik gabe. Mugikorrarekin ere ateratzen ditut argazki asko.

**Argazkiak ateratzerakoan, irudi zehatz baten bila joaten zara?**

Batzuetan, bila joaten naiz, baina, sarri, kamera soinean eramanda parean azaltzen diren egoerak kapturatzen saiatzen naiz. Planifikatu gabeko horiek ditut gustukoak.

**Edizioan aritzen zara?**

Normalean, ukitu txikiak egiten ditut, ez baitzait gustatzen argazkia eraldatzea. Argazkia txukunago geratzeko asmotan

erabiltzen dut, kamerak emandakoa pixka bat hobetzeko baino ez. Photoshop, esaterako, ez dut sekula erabiltzen.

**Lehiaketetan parte hartzen duzu?**

Parte hartu izan dut Arrasaten antolatu diren lehiaketetan eta pare bat aldiz Instagram bidezko probetan; dende antolatzen dituzten lehiaketaxoak, enpresek... Lehiaketaren batzuetan ere irabaztea suertatu zait; beraz, pozik nago. Argazkiak ez ditugu aterako disko gogorrean gordeta edukitzeko, ezta?

**Sare sozialak erabiltzen dituzu?**

Instagram, batez ere, argazkiak partekatu eta album modura erabiltzen dut. ■■■



# Bertsotan moduan

'DZIRT DZART' MARRAZKETA SAIOA

## AITZIBER ARANBURUZABALA JULDAIN

ARGAZKIAK: ASUN AGIRIANO

Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian kokatuta dagoen Komikiguneak *Dzirt-dzart* marrazketa saioa elkarlanean antolatzeko proposatu zion Arrasateko bibliotekari orain dela hilabete batzuk. "Bertsot saio baten itxura du, hau da, gai jartzaileak ematen dizkien gaien gainean irudi azkarrak sortu behar dituzte bat-batean artistek", dio Komikiguneak-eko Irune Arnaezek.

Arrasatekoiei gustatu egin zitzaion ideia. "Zalantza genuen zenbat jende hurbilduko zen, baina aurrera egin genuen; izan ere, biblioteka dagoen eraikinean margo eskolak ematen dira orain dela urte askotik, eta arte erakusketa asko izaten dira klaustroan; horregatik, guk ere arteari keinu bat egin nahi genion", dio Asun Agiriano bibliotekariak, asmatu zutela gaineratuta: "Txundituta egon ziren ikusleak, orokorrean, eta bukatu zenean halako gehiago egiteko eskatu ziguten batzuek. Publiko oso zabala batu zen: pintura irakasle eta ikasleak, gurasoak euren haurrekin...; 80 lagun inguru elkartu ginen. Oso polita izan zen guretzako ere".

### Botatako erronkari eutsiz

Donostian halako saio asko egin izan dituzte, eta orain, egoitzan obrak egiten ari direla

baliatuta, ekimena Gipuzkoara zabaldu dute, eta bi saio egin dituzte: irailean Usurbilen eta aurreko astean Arrasaten. Tokian tokiko artistekin egiten dute lan, eta, oraingoan, Alazne Zubizarreta eta Julen Ribas gonbidatu zituzten; eta Iraitz Agirrerri gai-jartzaile izateko eskatu. "Ez genuen idatzitako gidoirik; lagungarri moduan, aurreko saioko gaien eta lan egiteko moduei buruzkoak azaldu genizkien, baina Iraitzi inongo gidoi itxirik eman gabe", azaldu du Arnaezek.

Erronka polita iruditu zitzaion hirurei: "Gauza ezezaguna zen niretzako, gai-jartzaile lanak marrazkilarientzako zelan egin... Aurreko saioak lagundu zidan ariketak prestatzen; saiatu nintzen literatura eta pintura erreferentziak aipatzen, eta herriko historiarekin ere lotutakoak proposatzen. Gero konturatu nintzen ez zirela akaso bat-batean marrazteko oso samurrak, baina sekulako lana egin zuten biek!", azaldu du Agirrek, eta zera gaineratu du Ribasek: "Konfort-gunetik ateratzeko erronka potentea izan zen. Aurrez ezer jakin

## MARRAZKI AZKARREN BITARTEZ BAT-BATEAN ERANTZUTEN DITUZTE GAI JARTZAILEAK JARRITAKO GAIK

barik, bat-batean minutu oso gutxitan eta jendaurrean irudi bat marraztea, eta, gainera, norberaren puntutxo izatea... Oso zaila izan zen guretzako, baina, aldi berean, gozagarria. Alaznerentzako are gogorragoa izan zen: min hartu zuen bezperan, eta makuluaren beharra zuen. Gaiak oso politak izan ziren denak, oso lan ona egin zuen Iraitzek, baina, berari esan nion moduan, guretzako oso zailak ziren".

### Arbel zuriaren gainean

Bakoitzak arbel bat zuen, eta bakarka edo batera marrazten zuten. Modu ezberdinetan jaso zituzten Agirrerren partetik gaiak: kantuak entzunez, obra literarioei erreferentzia eginez...

Agirrek lana "serio demonio" hartu zuela dio Agirriari, irribarrez: "Bata bestearen marrazkia egiten jarri zituen hasteko! Musikaren bitartez, gai bitxiak atera zituen; geroago, esaterako, Rip-en *Mondra*-rekin herriko historiari buruzkoak, eta Euskararen eguna zela-eta euskalduntasuna zer den marrazteko ere eskatu zien".

### Komikigunean gordeta

Sortutako marrazkiak artxiboan gordeko dituzte askotariko komiki funts garrantzitsuak gordeta dituzten tokian, Koldo Mitxelena, baina udaberrian Alde Zaharreko Santa Teresa komentura aldatuko dute behin-behineko egoitza. ■■■



Saioan zehar egindako marrazki batzuk.



Iraitz Agirre gai-jartzailea, Julen Ribas eta Alazne Zubizarreta marrazkilariekin.



Euskalduntasunari buruz marraztera animatu zituzten ikusleak.



Aretoa bete zutenek arretaz jarraitu zuten saioa.

# Komunikatu beharra



IRATI BARRENA

**T**aberna batean lanean hasi nintzen orain dela hiru urte. Ez nuen uste komunikazioak horrelako garrantzirik izango zuenik lanbide honetan. Jendearekin hartu-emana izango duzula gauza argia da, baina hartu-eman horren atzean zer dagoen pentsatzen jarri izan naiz askotan.

**Hasieran**, oso arraroa egiten zitzaidan; orain, berriz, ohitu egin naiz. Konturatu nintzen nik elkarrizketa bat luzatu gabe bezeroa elkarrizketa sakontzen hasten zela poliki-poliki. Hala, ohartzen nintzen barraren atzean zegoen beste pertsona bere bizitzako edo bere etxeko arazo ugariz hitz egiten zegoela, nik ezer galdetu gabe edo nik hori jakin nahi izan gabe. Momentu horretan, pertsona horrek hori komunikatzeko beharra duela argi gelditzen da. Barruko pisu bat kentzeko beharra. Akaso, nahiz eta orain ni hau idazten egon, sarritan egingo nuen nik gauza bera. Baina barrua husten duzunean ez zara konturatzen hori gertatzen ari denik; bai, ordea, entzuten ari den pertsona zarenean.

**Edo ez.** Agian, ez nabil zuzen. Agian, ez da barruan duen eta zurekin partekatzen duen hori barrutik atera beharrean dagoela. Esaten ari den horrekin beste zerbait lortzea



E.A. / PMK

nahiko du, agian. Izan daiteke zuk ere gai berean duzun egoera kontatzea nahi duela, izan daiteke zuk zerbait konkretua esateko itxaroten ari dela edota izan daiteke berak zuk dakizun edo uste duzun gauza bat dakiela baina zure ahotik entzun nahi duela. Anariren *Zure aurrekari penalak* diskoko *Arquimedes* kantuko hitzetan agertzen da

**EGUNEROKOTASUNEAN  
GAUZA HARRIGARRIAK  
EGITEN DITUZULA  
ERAKUTSI NAHI IZATEN  
DUGU INSTAGRAMEN**

ideia hau oso argi azalduta. "Zeuk galdetu zenidan, bazenekien arren, ez nekiela erantzun nizun eta banekien; baina nola ereiten duenak ez duen beti jasotzen, duenak ez duen beti ereiten".

**Gazteok** ere "komunikatu behar" horrekin bizi gara. Sare sozialek ere ez dute, agian, honetan laguntzen. Badago Instagramen aukera bat, non zure argazkiak 24 orduz partekatzeko aukera duzun. 24 ordu horiek pasa ostean, igo duzun multimedia ezabatu egiten da. Tresna hau erakutsi/komunikatu beharrekin guztiz lotzen dudana zerbait da. Egun guztian zehar hara igozten dugun guztia ez da guztiz erreala –nik igozten dudana barne–. Zure egunerokotasunean gauza harrigarri, barregarri eta interesgarriak egiten dituzula erakutsi nahi diozu munduari. Eta, nola ez, egunerokotasunean egiten duzuna baino zerbait "bereziagoa" egiten duzunean, hori igo beharra sentitzen duzu –mendira joan, jatetxe batean bazkaldu, zinera joan...–. Ez partekatzea ez egitearen parekoa dela ematen du. Harrigarria da, bai. Are harrigarriagoa eta larriagoa da, agian, esandako guztia esan arren, nik neuk ere plataforma hauetan komunikatzeko behar hori sentitzea. ■



# Goiena Klubaren txokoa

## Goiena Klubeko abenduko sariak!



### Ibai-arteko 50€-ko txartelak

Parte hartzeko sariaren izena: Ibai-arte

Parte hartzeko azken eguna: abenduaren 19a

#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarren dagesen (LPD15/1999) legeari atxikita, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren itxtegi automatizatu baten sartzeko direla. Datu bilera honen helburu bakarra da indarren dagesen sustapena gestioz. Eskubidea zangozuzatu dastutan sartzeke, baiek zuzentzeko edo ezarritzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ  
ZERBITZUAK



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

[www.harremendenda.org](http://www.harremendenda.org)  
Bidezko Merkataritzako produktuak

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Txatxilipurdi elkarteari esker

Txikilandia parkerako sarrerak ditugu.

Arrasate | Uarkape | Urtarrilaren 2a, 3a eta 4a

#### Arrasateko udalari esker

'A.M.A.K.' taldearen kontzerturako sarrerak ditugu

Arrasate | Amaia Antzokia | Abenduaren 23a | 19:30ean

#### PARTE HARTZEKO:

#### ABENDUAREN 19RA ARTE

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "txikilandia/kontzertuei" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarren dagesen (LPD15/1999) legeari atxikita, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren itxtegi automatizatu baten sartzeko direla. Datu bilera honen helburu bakarra da indarren dagesen sustapena gestioz. Eskubidea zangozuzatu dastutan sartzeke, baiek zuzentzeko edo ezarritzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaituzte 2019ko abendutik aurrera: 10€  
Deitu: 943 25 05 05  
[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

goienakluba

# Burdinaren bidea

ANPORRETAKO BIRA ARRASATEN

---

## MIREIA BIKUÑA MADRID

ARGAZKIAK: ARRASATEKO UDALA

---

XX. mendearen hasieran, minerala ateratzen zen Arrasateko Meatzereka auzoaren inguruko meatzeetatik, eta airez, bereziki kable bidez, eroaten zuten Antoniñaraino. Han, txikitu eta bahetu egiten zuten, eta ostean, garbitu, lurrak, buztinak eta materia organikoa kentzeko. Ondoren, kamioietan sartu, eta Bergarako labegaraietara eroaten zituzten. Hain zuzen,

Antoniñako mineral garbitokia da Burdinaren Bidearen lehen geldialdi esanguratsua. PR-GI 205 ibilbidean ikus daiteke Arrasatera heltzen zen burdinak zein bide egiten zuen, minerala nola garbitzen zen eta meatzariak non bizi ziren.

### Meatzarien kofradia

Meatzereka auzoa meatzarien auzoa izan zen. Eta horren lekuko da San Balerio ermita. Ibilbidearen azken altxorra. Ermita hori noiz eta nork eraiki zuen ez da ezagutzen, baina

jakinekoa da meatzarien kofradiaren egoitza izan zela, 1434tik 1958ra arte. Tradizioak dio ermitaren erretaulari hiru buelta emanaz erlojuaren kontrako noranzkoan, buruko minak sendatzen direla.

Ermita izen bereko parkera dago lotuta. Hori ere kofradiaren jabetzakoa izan zen. Egun, Udalarena da.

### Itturritxipi eta Epele

Anporretako bira Monterronen hasi eta bukatzen da eta 11,7 kilometro ditu.



Antoniñako mineral garbitokia.

Burdinak egiten zuen bideari jarraiki, bi tontor ezagutzeko aukera dago: Itturritxipiko eta Epeleko gainak. Lehena tontor esanguratsua bezain ezezaguna da Arrasaten. Han, tumulu megalitikoak izan daitezkeen aztarnak daude. Epele, Anporreta eta Meatzerreka artean dago, eta Udalatx parez pare ikusteko aukera ematen du. Haraino goraino helduta, merezi du hango haizeolak ikustea. Mendian kokatutako labe horiek txikiak izaten ziren: zabalera 60 zentimetro eta

altueran 150. Meategietatik ateratako burdin meak labe zirkular horietan sartzen ziren, egur ikatzarekin edo egurrarekin batera, eta burdina ateratzen zuten. "Ez dakigu zehatz-mehatz labe haiek noiz hasi ziren erabiltzen, baina jakin badakigu Anporretako haizeola XI. mendean bigarren erdian erabiltzen zela", irakur daiteke Arrasateko Udalaren webgunean. XIII. mendean, burdinola hidraulikoak erabiltzen hasi ziren.

**Lubakiak**

PR-GI 205 ibilbideak beste bi gune esanguratsu ditu: 36ko gerrako lubakiak eta Urzulo iturburua. Lehena ibilbidearen hasieran dago. Antoniañako garbitokitik irteten den bidezidorretik hel daiteke lubakietara, pagadian zehar. 1936ko gatazkan, matxinatuek frontea egonkortu zuten zazpi hilabetez gune hartan.

Ibilbidearen azken zatian dago Urzulo iturburua. Urkulu egin aurretik Arrasate hornitzen zuen iturburu nagusia zen. ■■■



Anporreta gaina.



36ko gerrako lubakiak.



Urzulo urtegia.



Meatzerreka auzoa.



Haizeola.



San Valerio, barrutik.



### Redmi Note 8T

*Lau kameradun smartphonea. Xiaomi. 179 eurotik hasita.*

Atzeko aldeko kamera lauokitza nabarmentzen da, 48 MP eskaintzen dituelako lente nagusiak; aurrekoak 14 MP ditu. Mi Note 8-aren oso antzerakoa da, baina honek NFC dakar, ordainketetarako funtzio interesgarria. 6,3 hazbeteko pantaila dauka, Qualcomm Snapdragon 665 motorra, eta hiru bertsiotan saltzen da.

### Realme 5

*Lau kameradun smartphonea. Realme. 169 euro.*

Gama ertaineko mugikor honek Snapdragon 665 prozesatzailea erabiltzen du, eta potentzia maila ertaina eskaini. Aurreko kamerak 13 MP dauka eta atzean lau dakartza –12MP ditu nagusiak–. Plastikozko gorputza, 6,5 hazbeteko pantaila eta 198 gramo dauka. Aurikularrentzako *jack* sarbide tradizionala mantentzen du.

### Blackview A80 Pro

*Lau kameradun smartphonea. Blackview. 119,99 euro.*

Gailu honek Mediatek Helio P25 Octa-Core prozesatzailea, 6,49 hazbeteko pantaila eta 175 gramo dauka. *Selfie* kamerak 8 MP ditu eta atzeko aldeko sentore nagusiak 13 megapixel –guztiak Sony markarenak–. 4680 mAh-ko gaitasuna duen bateria dakar. Lau koloretan saltzen da: beltza, gorria, urdina eta berdea.

# ZUT


## Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA

Euskaraz



### Mugikorretarako!

Bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean! Ez biratu mugikorra; edukiak ZUTik, bertikalean!




### Gazteen gaiak

Musika, youtuberrak, erronkak, elkarrizketak, outfit onenak... Askotariko gaiak



### 'IXA' websaila


Formatu bertikalean egindun euskarazko lehen websaila ZUTen bakarrik ikus dezakezu.




### Eta zure edukiak!

ZUTen zure bideoak, erronkak, memeak, coverrak... jaso nahi ditugu! Animatu eta bidali!

# Deskargatu doan!

 APP Store

 Play Store

# Kakahueteak irudimena lantzeko

**EGILEA:** TXATXILIPURDI ELKARTEA  
**ARGAZKIAK:** TXATXILIPURDI ELKARTEA

Kakahueteak erabil ditzakegu gure sortzailetasuna pizteko. Hartu kakahuete bat, begiratu haur begiradarekin, eta asmatu. Zer izan daiteke? Utzi hurrei ariketa egiten, ea zer asmatzen duten, edo duzuen denen artean. Pertsonak, txakurrak, munstroak... Kakahueteak erdibitu eta forma erabiliz ere sor daiteke orri baten gainean. Proba ezazue!

## Materiala

- Kakahueteak.
- Margoak.
- Txotxak.
- Orri zuriak.

## Nola egin

**1. Pentsatu** Hartu kakahuete bat eta begiratu ze forma duen. Horren arabera eta irudimena erabiliz pentsatu zer sor daitekeen kakahuete hori oinarri hartuta.

**2. Margotu** Hartutako erabakiaren arabera eta margoak erabiliz sortu pertsonaia, harribitxia edo dena delakoa... Txotxak erabiliko ditugu adarrak, besoak edo hankak egiteko. Edo bururatzan zaizuen beste edozertarako.

**3. Kakahuete erdiekin lanean** Beste aukera bat da orri baten gainean lan egitea. Kakahuetea erdibitu eta askotariko pertsonaia eta egoerak sor ditzakegu. Kasu honetan ere, margoak oso lagungarriak izango dira.





**Africa Colomer Rodriguez**  
Berriz. Abenduak 9. 2,890 kilo. Gurasoak: Veronica eta Pablo. Argazkian, Africa txikia, amarekin eta aitarekin.

## Jaio da!


**Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz  
Goienaren egoitzara.**

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Gurasoen premiak asetzeko gunea  
**guraso.eus**

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarrizketak.



# Hemen

**GARBIKETAK**

ZURE  
KONFIANTZAKO  
**GARBIKETA**  
ENPRESA



Intxaurtueta 16, behea  
ESKORIATZA

**T. 943 71 48 45**

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)  
[hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)